

Luis Liz Marzánen hitzaldia, Farmaziako Errege Akademia Nazionalan

Luis Liz Marzán CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakaslea hitzaldi bat ematera gonbidatu dute datorren ostegunean, **urtarrilaren 26an, 16:30ean**, Farmaziako Errege Akademia Nazionalaren egoitzan (Farmazia, 11. Madril), Ingeniaritzako, Medikuntzako, Farmaziako eta Zientzietako errege-akademien jardunaldi zientifiko bateratu batzuk direla eta ([TETRACA](#)). Liz Marzánek, Zientzien Errege Akademiaren ordezkari gisa, nanosentsoreak zelula-eredu konplexuetan integratzeari buruz hitz egingo du, eta zuzenean jarraitu ahal izango da hitzaldia [RANF.TV](#) eta [RANFren YouTube](#)ko kanalen bidez.

Nanoteknologiari eta nanozientziari buruzko saio berean, hitzaldi bana emango dute Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Onkologiako katedradun Jesús García-Foncillas Lópezek (“Nanoteknologia doitasun-onkologian”), Espainiako Medikuntzako Errege Akademia Nazionalaren ordezkari gisa; Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Farmaziako lizentzia eta doktoretza dituen Antonio I. Doadrio Villarejok (“Farmakoak kontrolpean askatzea, material mesoporotsu ordenatuetan”), Farmaziako Errege Akademia Nazionalaren ordezkari gisa, eta Nanozientzia eta Nanoteknologiako Kataluniako Institutuan ICREA ikertzailea den José Antonio Garridok (“Interfaze neuronaletarako nanomaterialak eta nanoteknologia, eta haien aplikazio medikoak”), Ingeniaritzako Errege Akademiaren ordezkari gisa.